



**2017KO ABENDUAREN 15EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hamabostean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Joseba Imanol Aran Barandiaran zinegotzia ez da bertaratu eta ez du ohartarazi bere ezin etorriaz.

Eguneko gai zerrendatik kanpo, eta ordainketak asko atzeratu ez daitezzen, presazko izaeraz, 2017ko basherri eguneko partehartzaileei ematen zaien laguntzen gaiaren inguruan eztabaidatzea eta erabakitzea planteatzen da. Bertaratutako guztiek ontzat ematen dute proposamena.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2017ko abenduaren 1ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 125 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMABI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (12.137,80 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 17-11-09 zbk.dun esped.: zerbitzua jartzea 2017ko azaroaren 20tik aurrera, bere osasun egoera hobetu bitartean. 2 hilabetetarako izango dela aurreikusten da. Zerbitzua 2 ordu eta erdikoa izango da astelehenetik larunbatera eta ordu eta erdikoa igandean. Laguntza pertsonala eta etxeko garbitasunerako laguntza emango zaio. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24 izango da.
- 14-11-09 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea abenduaren 2tik aurrera, astean 12 ordu eta erditatik 13 ordu eta erdira. Zerbitzua larunbatean eta igandean jarriko zaio



gosaria eta medikazioa emateko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.

- 09-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, astean 9 ordutik 10 ordura. Laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %48 izango da.

#### Laguntzaile gazteentzat bekak.-

- Jessica Cantero Pinto.- AMBESSA erakundearekin Etiopia eta Tanzaniara egin duen bidaia solidarioaren barruan, eta gastuen fakturak aurkeztu ondoren, diru laguntzaren bigarren zatia ematea, 694,15 €.

#### Orobione erretiratu eta pentsiodunen elkarteari diru laguntza.-

Urteko diru laguntzaren bigarren zatia ordaintzea, guztira 4.764 €, xehetasun honen arabera:

- Urteko ekintzen garapenerako: 3.514,00 €
- Oinarrizko egituraren funtzionamendurako: 1.250,00 €

#### Entitateei diru laguntzak.-

Gizarte zerbitzuetako jarduerengatik, 2017 urteari dagozkion diru laguntza hauek ematea:

Entitatea	Zenbatekoa
Odol emaleak	1.317 €
Gurutze gorria	3.510 €
Gizakia helburu	1.100 €
Azki, emakumeen taldea	1.000,00 €

#### IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Lazkaoko GOROSKT skate taldeak, udako kirol kanpainaren barruan, uztailaren 3tik 14 bitartean, egindako jardueri aurre egiteko diru laguntza emateko kiroleko zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, 565 €ko diru laguntza ematea erabakitzen du.

#### V.- "BASHERRI EGUNEKO" DIRU LAGUNTZAK.-

Landa lur gaietarako zinegotzi arduradunak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako diru laguntzak onartzen ditu, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin:

#### - Baserritarrei.-

"2017ko basherri egunean" parte hartzeagatik, 17 baserritarrei, bere espedientean aurkitzen den eranskinean xehatzen den baserritar eta zenbatekoen arabera, guztira 4.280,34 €.



LAZKAOKO  
UDALA

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hogei gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

